

## **Euskaraz jolasean aritzeko Parketarrak egitasmoa Donostiako 20 jolasgunetan egongo da, martxoaren 4tik 22ra**

Parketarrak ekimena martxan jarriko da martxoaren 4tik 22ra Donostiako 20 jolasgunetan. Euskaraz jolasean aritzeko ekimena astelehenetik ostiralera egingo da arratsalde 17 auzotan: Aiete, Altza Herrera, Altza Casares, Antigua, Añorga, Amara Berri (Olaeta), Amara ( Araba parkea), Egia (Martin Santos pl.), Egia (Atotxa Zelaia pl.), Gros (Katalunia pl), Gros (Nafarroa Behera pl), Ibaeta, Igeldo, Loiolako Erribera, Intxaurren, Martutene, Morlans, Parte Zaharra (Zuloaga pl.), Txomiñenea eta Zubieta.

Auzo horietako plaza eta parkeetan haurrak eta gurasoak biltzen dira, bi taldeetan: Zabu Zibu izenekoa, 3-5 urte arteko haurrekin eta haien arduradunekin; eta Txirrintxon deiturikoa, 6-9 urte bitarteko umeekin. Jolasa da jardueraren funtsa, erreminta ezin hobea delako hizkuntza barneratzeko, eta jolasguneetan jartzen diren dinamizatzaileak dira jarduera gidatzeaz arduratzen direnak.

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta auzoetako euskara batzordeek antolatzen dute jarduera hau, hizkuntzaren erabilera indartu nahi dutelako aisialdiaren eremuan, eta, hain zuzen esparru hori lantzeko, elkarlanean sortu zuten Parketarrak egitasmoa, **haurrak eta familiak kalean jolasean dabiltzanean, euskaraz aritzeko**. Egitasmoa urteko hiru sasoietan antolatzen da: martxoan, maiatzean eta urrian.

### **Eskola orduz kanpoko jardunaren garrantzia**

Haurren lehenengo hilabete eta urteetan garrantzitsua da etxeko giroa eta arlo ludikoa euskaraz lantzea. Gero, umea handitzen doan heinean, harreman sareak eratzen hasten da, eta, une horretan ere, oso garrantzitsua da laguntxoekin euskaraz ongi pasatzeko aukerak izatea, lagunarteko hizkera indartzea eta komunikazio-ohiturak euskaraz eraikitzea. Parketarrak egitasmoak horretarako baliabideak eskaintzen dizkie haurrei eta familiei.

### **Joan den urriko txandako parte-hartzea**

Parketarren aurreko txanda joan den urrian izan zen, eta aurreko edizioetan bezala, haur askok parte hartu zuen, eguraldiak askorik lagundu ez zuen arren (70 saio inguru antolatu ziren). Zehazki, 1066 haur eta 133 guraso edota tutore ibili ziren Parketarren bueltan, iazko urrian,



## Prensa Oharra

ekimen erakargarria baita. Hala berretsi dute parte-hartze datuek eta jarduera bukatzean haurrei nahiz helduei egiten zaizkien galdetegiak.

## EGITARUA

2024 MARTXOA	AUZOA	Zabu Zibu*	Txirrintxon
ASTELEHENAK martxoak 4, 11 eta 18	ALTZA HERRERA San Luiz Gonzaga plaza edo Euskotren plaza berria.	17:00	18:00
	MORLANS Leire plaza. Euriarekin bertako aterpean.	17:30	17:30
	TXOMIN ENEA Andereñoak plaza. Euriarekin bertako aterpean.	17:00	
	AÑORGA Amassorrain ikastetxeko patioa.	17:00	
ASTEARTEAK martxoak 5, 12 eta 19	LOIOLAKO ERRIBERAK Zabu Zibu Santiago enparantza. Euriarekin bertako aterpean. Txirrintxon: Maria Zambrano plaza. Euriarekin bertako aterpean.	17:30	17:30
	EGIA Plaza Haundi, Luis Martin Santos plaza. Euriarekin bertako aterpean	17:30	17:30
	ZUBIETA Herriko plaza. Zubietako Errebote plaza.	17:00	
	MARTUTENE Martuteneko parkea, ikastola ondoan. Euriarekin ikastolako patioan.	17:00	18:00
ASTEAZKENAK martxoak 6, 13 eta 20	ALDE ZAHARRA Zuloaga plaza. Euriarekin bertako aterpean.	17:00	17:00
	ANTIGUA Mikel Laboa plaza, lehengo Gorgatxo plaza. Euriarekin frontoian.	17:15	18:15
	EGIA Atotxako zelaia plaza	17:00	18:00
	ALTZA Casares Casares Kultur etxe aurrean (barruan, eguraldi txarrarekin).	17:00	
OSTEGUNAK martxoak 7, 14 eta 21	AMARA BERRI Ferrerias plaza, Olaeta kalea. Euriarekin ikastetxeko patioan.	17:00	17:00
	GROS Nafarroa Beherea plazan	17:00	18:00
	AMARA Araba parkea. Euriarekin Sahats plazan.	17:00	18:00
OSTIRALAK martxoak 8, 15 eta 22	IGELDO Herriko plaza	17:45	
	AIETE Hiru Damatxo plaza. Euriarekin bertako aterpean.	17:00	17:00
	IBAETA Karlos Santamaria plaza. Euriarekin frontoian.	17:30	17:30
	INTXAURRONDO Bernart Etxepare plazatxoa. Euriarekin Intxaurrondoko ikastolako patioa.	17:30	
	GROS Katalunia plaza	17:00	

\* Heldu batekin

[Informazio gehiago: www.donostiaeuskaraz.eus](http://www.donostiaeuskaraz.eus)